

**BASAURIKO UDAL HAUTESKUNDEEI BEGIRA, HAUTESLE-ELKARTE BATEN PROIEKTU KONSTITUZIOGILEA DEITZEKO, ANTOLAKUNTZA ETA GIZARTE ARLOKO MINIMOAK ZEHAZTEN DITUEN DOKUMENTUA.**

**Basauri Bai – Minimoen dokumentua**

# AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. ANTOLAKUNTZA LANAREN ETA LAN JURIDIKOAREN MARRA GORRIAK
3. HELBURU POLITIKOAK
4. KONPROMISO ETIKOA

## **Basauri Bai – Minimoen dokumentua**

### **BASAURI BAI-AHAL DA HAUTESLE-ELKARTERAKO MINIMOEN MANIFESTUA, BASAURIKO PODEMOS-AHAL DUGUK SUSTATUTA.**

#### **1.- SARRERA**

##### ***Basauri, inguru sozial eta politikoa***

**Basauri Bai Ahal Da** sortu da akatsez beteriko eredu politiko bati erantzuteko. Izan ere, alderdi tradizionalak akats horiek baliatzen dituzte, euren klientelismoari eta ate birakarien metodoei eusteko.

Espainiar estatuko Herri guztietako Herritarrok garai latza bizi dugu; baina are latzagoa, gure kasuan den bezala, tradizio industrialeko herrietan bizi garenok. Basaurik gogotik jasan ditu kapital krisiaren ondorioak; lotura politiko-ekonomiko zikinek eragindako krisia da, eta erakunde guztietan agintzen eduki ditugun alderdi politikoek aldian-aldian berretsi dutena.

Horregatik guztiagatik sortu gara Herritar Alternatiba gisa; betikoaren alternatiba gisa. Erakutsi nahi dugu, interes pribatuek sistema usteldu eta manipulatu badute ere, borondatez eta zintzo jokatuta, **Basauri Bai** gai dela Udal Gestioa eta Boterea bere jabe legezkoari bueltatzeko; hau da, basauriar guztiei bueltatzeko. Badakigu, hori gardentasunez jokatuta baino ez dela lortzen, eta Basauriko interes sozialen aldeko gestioa eginda. Ez, ordea, udalerraren gestioa eraman izan duten alderdien irizpideei jarraituz.

Hautagaitza hau hautesle independenteen elkarte bat izatea nahi dugu, Basaurin bizi garenok eta ahalik eta talde sozial gehienek osatutako herri-assemblya batek zuzenduta. Berez, helburua argia baita: geure herriko bizimodua eta lana erraztea. Hain zuzen ere, tresna bat izan 2015. urtea aldatetaren urtea izan dadin; bizilagunok, lau urtean behin botoa nori eman erabakitzeaz gain, eragiten diguten gainerako gaiei buruzko erabakiak ere har ditzagun; eta, azken batean, Basauri bizileku hobea bihur dezagun.

Herri-assemblya nagusiaren zeregina izango da hauteskunde programa bat zehaztea, modu positiboan zehaztu ere. Bizilagunen eta auzoen arteko berdintasunean, eskubide sozialetan eta gardentasunean oinarrituta. Denek idatzitako hauteskunde-programa, eta denen beharrezanean erantzungo diena. Horretarako, beraz, bateratze guneak sortu nahi ditugu, eta bertara inguratzeke deia egiten diegu herritarrei eta talde sozial eta kultural guztiei.

## Basauri Bai – Minimoen dokumentua

### 2.- ANTOLAKUNTZA LANAREN ETA LAN JURIDIKOAREN MARRA GORRIAK

#### *Ez gara beste guztiak bezalakoak*

Hogeita batgarren mendeari dagokion alternatiba eta berrikuntza espirituari helduz sortu da Basauri Bai. Hori dela eta, ezinbesteko irizten diegun zutabe hauen gainean altxatu dugu proiektua:

1.- **Herritarren parte-hartzea eta Demokrazia:** Gure iritzian, herria ahalduntzea da betikoei boterea kentzeko modu bakarra; Basaurin nagusitu den klientelismo eta ate birakarien ereduari amaiera emateko modu bakarra.

Basauri Bai berdinean hartuko ditu bere baitan programako lerro komunekin bat datozen pertsona, gizarte mugimendu eta talde guztiak. Programako lerro horiek izango dute protagonismo nagusia prozesu guztian; parte-hartze sozialaren oinarri izango dira, harik eta udal hauteskundeak egin arte.

2.- **Independentzia:** Hautesle-elkartea alderdi politiko batek deituta eta babestuta dagoen arren, udal asanbleak baino ez du izango elkarteak hartutako erabakien kontu eskatzeko ahalmena; eta, era berean, asanblea hori alderdi politiko edo barne aparatuetatik independentea izango da.

3.- **Eredu asanblearioa:** Basauri Bai elkarteak Basauriko eremuko bateratze guneak gestionatuko ditu; aldian-aldian batzarrak eginez, interesa duten guztiak erabakitzeke ahalmena izan dezaten, eta ahalik eta adostasun eta parte-hartzerik handiena bilatuz.

4.- **Gardentasuna:** Prozesu guzti-guztia, proiektuaren sorrera eta garapena, publikoa izango da. Jarduera instituzionalari dagokionez, kontu guztien berri emateko irizpideari jarraituko zaio. Gizon-emakume hautetsiek herritarren kontrolpean jarduteko konpromisoa hartu beharko dute, eta Ekimen sozial eta politiko honetako kideek demokratikoki onartutako kode etikoa zorrotz beteko dutela hitz emango dute.

Premisa hauek garatzeko asmoz, antolakuntzari eta arlo juridikoari dagozkien minimo hauek planteatu dira:

1) Herritar Hautagaitzaren forma juridikoari dagokionez, Hautesle-elkartea izango da, forma juridiko horixe baita, alderdi politikoaren kontrolatik aldendutako auzotar hautagaitza gisa, legegileek onartzen duten bakarra. Hautesle-elkarteak hautesleen beraien bermearekin sortzen diren talde politikoak dira, hauteskunde prozesu zehatz

batean hautagaitza aurkezteko. Hautesle-elkarte bakoitza autonomoa da, eta gainerakoetatik independentea.

2) Asanbleak hartuko ditu erabakiak, eta hautagaitzako kargudunak, hautetsiak izan zein ez, herri-borondatearen bozeramaileak baino ez dira.

3) Hautagaitzaren erabaki guztiak publikoak izango dira, baita finantzak ere.

4) Kargudun hautetsi izateko bozketak zerrenda irekien sistema baten bitartez egingo dira.

5) Hautagaitza honetatik kargudun hautetsiak irtenez gero, hainbat muga izango dituzte:

- Aurretik nonbait hautetsi izandakoak ezin izango dira hautagai izan.
- Hautagaitzaren estatutuetan etorriko da zehaztuta kargudun hauen soldata muga.
- Hautetsiak Asanbleak ebatzitakoen ordezkari eta bozeramaile izango dira soilik.
- Kargugabetzeari dagokion irizpide zalantzagabeari helduz, elkarte honetako ordezkariak idatziz azalduko dute kargua uzteko konpromisoa, baldin eta, inoizko denboran, Asanblearen konfiantza galduko balute.

## **Basauri Bai – Minimoen dokumentua**

### **3- HELBURU POLITIKOAK**

1.- Herriak BERE dituen baliabideen aldeko xedapena. Hutsik dauden udal etxebizitzak beharrezkoak dutenek erabiltzeari emango zaio lehentasuna. Hori lortzeko, hitzarmenak negoziatuko dira banku-erakundeekin edota etxea hutsik daukaten jabeekin. Horretara, etxebizitza eskubidea galtzeko arriskuan, egoera zaurgarrian, dauden bizilagunei bizileku duina ematea da asmoa.

2.- Bazterkeriaren eta eskusio sozialaren aurkako borroka. Nabarmentzekoa da kide guztiak lan barik dituztela eta erakundeen laguntza barik bizi diren familiak gero eta gehiago direla. Gizartea berrantolatzen ari da, elkartasunaren bidez, berez gobernuen obligazioa dena betetzeko; hau da, herritarren ongizatea zaintzeko. Hain zuzen ere, arlo horretan lan egin behar dute udal erakundeek, euren izaera sozialagatik eta auzotarrengandik hurbil daudelako. Gizarteratzeko metodo ugari daude, eta horiek denak baliatzeko, ezinbestekoa da diru gehiago bideratzea arlo horretara.

Gure asmoa da eskubide sozialak bermatzea, zerbitzu eta prestazio duinen bitartez, pobrezari, bazterkeriari eta dependentziari aurre egiteko; bai eta familia eta lana uztartu ahal izateko ere. Gure zeregina da zerbitzu publikoak defendatzea, diskriminaziorik egin barik, eta gestio eraginkorra eginda, irabazi-asmorik gabea.

3.- Benetako parekidetasuna lortzeko politikak, eta indarkeria matxistaren aurka modu eraginkorrean egiteko plan integralak sendotzea. Homofobiaren eta transfobiaren aurkako politikak bultzatzea; eta xenofobiari aurre egiteko, kultura anitzeko gizarte inklusiboaren alde jardutea.

4.- Enplegu eta enpresa txiki eta ertainei (ETE) laguntzeko neurriak. Udal erakundeek ETEen alde lan egin behar dute, euren ibilbideko arloetan lagunduz: udal baimenak lortzeko proiektuen gestioan, ETEak eratzeko beharrezko diren paperen tramitazioan, eta enpresa mintegien sorreran, besteak beste. Basauri Baikoek pentsatzen dugu lan banaketa dela langabeziari eta lan-prekarietateari aurre egiteko modu bat; eta, horregatik, geure gobernu eremuan, lanaldia murriztea proposatuko dugu. Lana herritar guztien artean modu bidezkoagoan, modu ekitatiboan, banatuta egon behar da, gure ustez.

5.- Udal zergen banaketa ekitatiboa. Orain arte azaldutako proposamenak aurrera ateratzeko laguntza ekonomikoa ez da etorri behar, gure iritziz, zorpetze handiago batetik, bildutako zergak hobeto banatuzetik baizik. Horrez gainera, zerga horien ordainketa justuagoa diseinatu beharra dago, eta gehien irabazi eta gehien dutenek udal kutxara gehiago eman dezatela.

6.- Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea. Ezin beste era batera izan: lehentasuna emango diegu arlo honi, eta gure kontuak aldiro argitaratuko ditugu. Era berean, kontrol organoak eratuko ditugu, ustelkeria kasurik gerta ez dadin, eta derrigorrean bete beharreko kode etikoa publiko bat ezarriko da. Horrez gainera,

herritarren eskura jarriko dira parte-hartze metodoak, politika jendearengana hurbiltzeko premisari eutsiz. Informazio publiko zehatza emango da lanpostu eta soldaten gainean, aurrekontuen erabileraz, dirulaguntzak jasotzen dituztenei buruz, eta kontratu publikoen esleipen eta aldaketak zehaztuz. Bikoiztasunak, dirua alferrik galtzea eta pribilegioak eragotziko dira. Aurrekontuak ahalik eta parte-hartzerik handienarekin egingo dira.

7.- Asanbleak deituko dira aldiro, udal zein auzo mailako erabaki garrantzitsuak hartzeko. Asanblea bera, bakoitzean auzo batean deitzeko ahalegina egingo da.

8.- Udal aurrekontuak ahalik eta partaidetza handienekoak izatea bilatuko da, eta lehen mailako eta bigarren mailako auzoen artean egin ohi diren bereizketak ekidingo dira.

9.- Erakunde sozial eta ekologistekin lankidetzat bultzatuko da, ingurunea eta osasun publikoa errespetatzen duen udalerrira izate aldera.

10.- Gardentasun handiagoa udaleko lan-poltsa publikoetan; lehiaketa publikoak kantitate ekonomiko handi samarreko kontratuetarako; eta kontuak, argiak eta denen eskuragarri.

11.- Merkataritza-gune handien gaintik, auzoko eredu komertzialari ematea lehentasuna. Basauri biziberritzea, herri askotan gertatu den moduan gerta ez dadin; hau da, kaleak dendarik gabe, basamortu hutsa bilakatu ez daitezen.

12.- Zerbitzu publikoak bultzatzea, modu berezian osasuna eta hezkuntza; publikoa eta kalitatezkoa.

13.- Eredu energetiko eta hirigintza eredu berria bultzatzea, klima-aldaketari eta gaur egungo krisi energetikoari aurre egiteko. Lehentasuna ematea oinezkoari, bizikletari, trenari eta autobusari, ibilgailu pribatuen oinarritutako garraio sistema jasangaitzaren aurrean. Herri eta hiriak bizitoki osasuntsuago eta hurbilagoak bilakatzea. Lurraldearen plangintza jasangarri eta parte-hartzaileagoa egitea; natura eta landa-eremuak babestuz, beharrezkoak ez diren bideak eraikitzeari utzita, eta jendeari auzoetako bizimodua errazturik.

14.- "0 hondakin" lortzeko helburuan aurrera egitea, hiri-hondakinak murriztuz, berrerabiliz eta birziklatuz. Gaikako bilketa jatorrian bertan bultzatzea, bai eta materia organikoaren konpostatzea ere. Gure asmoa da argindar sorkuntza publikoa bultzatzea, energia berriztagarrien bitartez; eta autokontsumoa sustatzea.

15.- Kultura eta kirol arloetarako sarbidea herritarren eskubidetzat hartzea. Homogenizazio merkantilista eta identitarioari aurre egiteko, aniztasun kulturala eta sormen librerako espazioak bultzatzea. Lehentasuna ematea aire libreko kirol instalazio publikoei, eta dohainik izatea. Kirol profesionalari diruz ez laguntzea.

16.- Euskara sustatzea, irakaskuntza metodoak gizartera hurbiltzeko planak zehaztuta, bai eta euskara erabiltzeko espazio gehiago jarrita; neurri inklusiboak baliatuz; eta hizkuntza-eskakizunen ehunekoak lekuan lekuko errealitate linguistikora egokituz.

17.- Animalien errespetuaren alde, modu aktiboan jardutea, eta tauromakiari eta animaliei tratu txarra ematea dakarten ikuskizunei finantziario publikoa kentzearen alde.

18.- Elkartasun internazionalista, pobrezia eta gizartean den berdintasun ezaren aurka egiteko. Garapenerako aurreikusitako %0,7koa bideratuta.



## **Basauri Bai – Minimoen dokumentua**

### **4.- KONPROMISO ETIKOA**

#### ***Herritarrekin eta herritarrentzat***

I. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala gure gizarteko arlo sozial, politiko eta instituzional guztietan bete dadila defendatzea.

II. Herritar guztiak zuzenean eta berdintasunean parte hartzea erabakiak hartzeko eremuetan, bai eta politika publikoak gauzatzeko esparruan ere.

III. Herri-subiranotasuna eta subiranotasun demokratikoa berreskuratzearen alde lan egitea.

IV. BASAURI BAI- AHAL DAN, parte-hartzea libre, borondatezkoa eta nahi duten pertsona guztiei irekia izan dadila jagotea; Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren alde eta herritarren parte-hartze zuzen edo demokratikoaren alde dauden pertsona guztiak har dezaten parte, estatus zibila edo soziala bereizi gabe.

V. Iritzi guztiak zintzo eztabaidatzea, eta pertsona guztiak errespetatzea, bere pentsamoldea gorabehera.

VI. Udal ganberarako hautagaiak, gizon eta emakumeak, herritar guztiak parte hartutako hauteskunde primarioen bidez hautatu daitezela eskatzea eta errespetatzea; beti ere, zerrenda irekiak erabiliz, eta parekidetasun irizpideak aintzat hartuz. Transfugismoa gaitzestea, eta, herritar guztiak parte hartutako primarioen bitartez aurrez funtzio horretarako hautetsiak izan ezean, BASAURI BAI n kargurik ez edukitzea zaintzea.

VII. Hauteskundeak egin baino lehenago edo egin ostean, beste talde politiko batekin itunen bat eginez gero, aurrez, lurralde ordezkari guztietan eta herritar guztiei galdetuta eta beraiek demokratikoki oniritzia emanda izan dadila eskatzea eta errespetatzea.

VIII. Dena delako kargudun hautetsia ordezkari hutsa izatea eskatzea eta errespetatzea; berak agintaldian zehar hartutako erabakiak parte-hartze ireki eta demokratiko bidezko metodoan ebatzitakoak izan behar direla onartuta.

IX. BASAURI BAI politika arloko profesionalen zerbitzura dagoen plataforma sekula ez bihurtzea. Horretarako plataformako kargudun hautetsi guztiak ondoko puntu hauek onartuko dituzte, eta, onartu ezean, plataformatik kanporatuko dira:

a) Ordezkaritza maila bakoitzeko zehaztuko den soldata-muga.

b) Oro har, pertsona bakar batek zenbat funtzio publikotan jardun ahal izango duen zehaztutako muga.

c) Ordezkaritza izateagatik zuzenean lortzen diren pribilegio juridiko eta material guztiei uko egitea.

d) Ordezkaritza gisa jardun bitartean eta jardunaren amaieran, kontuak argi eta garbi azaltzeko konpromisoa.

e) Iraganeko edo etorkizuneko egindako ibilbide profesionalari eragingo dioten kargu edo erabakietan parterik ez hartzeko edo inhibitzeko konpromisoa.